

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Zuzentaraua: 79/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko urtarrilaren 14koa, hidrogenoz dabiltzan ibilgailuen homologazioari buruzkoa, eta 2007/46/EE Zuzentaraua aldatzekoa.

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 79/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de enero de 2009, relativo a la homologación de vehículos de motor impulsados por hidrógeno y que modifica la Directiva 2007/46/CE» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 35/32, 2009/02/04koa*)»

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**79/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA  
ETA KONTSEILUARENA,**

**2009ko urtarrilaren 14koa,**

**hidrogenoz dabiltzan ibilgailuen homologazioari buruzkoa, eta 2007/46/EE  
Zuzentaraua aldatzekoa**

**EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO  
KONTSEILUAK,**

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Barne-merkatuak barruko mugarik gabeko espazio bat hartzen du, salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatuta dagoen espazioa. Horretarako, ibilgailu motordunak homologatzeko Erkidegoko sistema bat dago. Parekatu egin behar dira hidrogenoz dabiltzan ibilgailu motordunen homologazioa egiteko betekizun teknikoak; batetik, ez dadin gertatu estatu kide bakoitzak bere ebazpena eman eta horiek estatu kide batetik bestera desberdinak izatea; bestetik, bermatu dadin behar bezala funtzionatzen duela barne-merkatuak; eta, azkenik, ingurumenerako babes-maila handia eta segurtasun publiko handia eman dadin.

(2) Erregelamendu hau erregelamendu partikularra da, homologaziorako Erkidegoko prozeduraren baitan egindakoa, 2007/46/EE Erregelamendua betez. Erregelamendu hori Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartu zuten 2007ko irailaren 5ean, eta horren bidez esparru bat sortzen da ibilgailu motordunak eta haietarako atoiak, sistemak, osagaiak eta unitate tekniko independenteak homologatzeko (Esparru-zuzentaraua) [3]. Horrenbestez, komeni da zuzentarau horren IV, VI eta XI. eranskinak aldatzea.

(3) Europako Parlamentuak eskatuta, ibilgailuei buruzko Erkidegoko legediari planteamendu arautzaile berria aplikatu zaio. Horrenbestez, erregelamendu honek hidrogeno-osagaien eta -sistemen homologazioari buruzko betekizunen alorreko funtsezko xedapenak soilik ezartzen ditu, eta espezifikazio teknikoak 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari [6] jarraiki hartutako neurri betearazleen

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

bidez ezarri behar dira; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki.

(4) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea entsegu-betekizunak eta -prozedurak ezar ditzan, hidrogenoa biltzeko eta erabiltzeko modu berrietarako, beste hidrogeno-osagai batzuetarako eta propulsiio-sistematikarako. Eta egokia da, halaber, Batzordeari eskumenak ematea prozedura, entsegu eta betekizun espezifikoak ezar ditzan hidrogenoz dabilzan ibilgailuak talken aurka babesteko, eta horren sistemen babes-betekizunak ezartzeko. Neurri horiek orokorrak eta erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(5) Garraioaren sektorean, helburu nagusietako bat ingurumena errespetatzen duten ibilgailuen proportzioa handitzea da. Ahalegin berezia egin behar da mota horretako ibilgailu gehiago merkaturatu daitezken. Erregai alternatiboa erabiltzen duten ibilgailuak merkaturatzen badira, nabarmen hobetu daiteke hirietako airearen kalitatea, eta, horrenbestez, baita osasun publikoa ere.

(6) Hidrogenoa etorkizunean ibilgailuak higiarazteko modu garbitzat jotzen da, isuririk gabeko sistema ekonomiko bat lortzeko, lehengaiak berrerabiltzea eta baliabide berriztagarriak oinarri dituen. Izan ere, hidrogenoa lokomozio-modutzat erabiltzen duten ibilgailuek ez dute karbonoa oinarri duten kutsatzailerik igortzen, ez eta berotegi-efektuko gasik ere. Hidrogenoa energia-bektorea denez eta ez energia-iturria, hidrogenoa lortzeko iturria zein den, halakoa izango da klimari eragiten zaion ondorioa. Hori dela eta, saiatu behar da hidrogeno-erregaia ahal den neurrian energia-iturri berriztagarrietatik ateratzen, hidrogenoa erabiltzeak ez diezaion kalterik egin ingurumen-oreka orokorrari.

(7) CARS 21 goi-mailako taldearen azken txostenak adierazi zuen ahaleginak egiten jarraitu behar dela, egokia denean, nazioartean ibilgailu motordunei buruzko araudia gehiago bateratzeko, honetarako: ibilgailuen funtsezko merkatuak inplikatzeko eta legedi-bateratzea oraindik iritsi ez den sektoreetara iristeko, eta, bereziki, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoko (CEPE/NU) 1958 eta 1998ko akordioen esparruan. Gomendio horri jarraituz, Batzordeak nazioartean ibilgailu motordunen betekizunak bateratzeko lanean laguntzen jarraitu behar du, CEPE/NUren babesean. Eta bereziki, hidrogenoa darabilten eta erregai-pila darabilten ibilgailuei buruzko munduko erregelamendu teknikoak (GTR) onartzen bada, Batzordeak kontuan hartu behar du erregelamendu honetan ezarritako betekizunak GTR horretako betekizunetara egokitu beharko lirakeela.

(8) Hidrogeno-nahasteak trantsizioko erregai izan daitezke hidrogeno purua erabili baino lehen, gas naturaleko azpiegitura ona duten estatu kideetan hidrogenoz dabilzan ibilgailuak sar daitezken errazteko. Batzordeak, horrenbestez, ezarri behar du zer betekizun bete behar diren hidrogenoaren eta gas naturalaren/biometanoaren nahasteak erabiltzeko. Eta bereziki, zehaztu behar du nahasteak zer hidrogeno- eta gas-proportzio izan behar duen, bideragarritasun teknikoak eta ingurumenerako abantailak kontuan hartuta.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(9) Hidrogenoz dabilzan ibilgailuentzako homologazio-esparrua zehazten bada, teknologia horretan konfiantza handiagoa izango lukete erabiltzaile potentzialek eta jendeak oro har.

(10) Hori dela eta, esparru egoki bat eratu behar da lehenago merkaturatu daitezen propulzio-teknologia berritzaileak darabiltzaten ibilgailuak eta ingurumenean inpaktu txikia duten erregai alternatiboak erabiltzen dituztenak.

(11) Ekoizle gehienak inbertsio handia egiten ari dira hidrogenoaren teknologia garatzeko eta horrelako ibilgailuak merkaturatzen hasi dira. Pentsatzekoa da hidrogenoz dabilzan ibilgailuen proportzioa handiagoa izango dela etorkizunean. Horrenbestez, beharrezkoa da zehaztea hidrogenoz dabilzan ibilgailuek segurtasuneko zer betekizun komun bete behar dituzten. Ekoizleek ikuspegi desberdinetatik gara ditzakete hidrogenoz dabilzan ibilgailuak, eta horregatik ezinbestekoa da segurtasunaren alorrean ezartzen diren betekizunak ez izatea erabilitako teknologiaren arabekoak.

(12) Hidrogeno-sistemen eta horien osagaien segurtasun-alorreko betekizunak zehaztu behar dira, homologatu ahal izan daitezen.

(13) Hidrogenoz dabilzan ibilgailuak homologatzeko, ezinbestekoa da zehaztea zer betekizun bete behar diren hidrogeno-sistemak eta horretarako osagaiak ibilgailuan jartzeko.

(14) Hidrogenoak ezaugarri bereziak dituenek, posible da sorospen-zerbitzuek hidrogenoz dabilzan ibilgailuei tratamendu berezia eman behar izatea. Beharrezkoa da, beraz, zehaztea zer betekizun bete behar diren horrelako ibilgailuak argi eta azkar identifikatzeko, sorospen-zerbitzuek jakin ahal izan dezaten ibilgailuak zer erregai-mota daraman. Identifikazio-bitartekoek bete egin behar dute bere helburua, baina, ahal den heinean, saiatu behar da bitarteko horiek ez dezatela jendea beldurtu.

(15) Garrantzitsua da, halaber, ezartzea ekoizleek zer obligazio dituzten dagozkien neurriak hartzeko hidrogenoz dabilzan ibilgailuek egokia ez den erregaia erabil ez dezaten.

(16) Zaila da hidrogenoz dabilzan ibilgailuek arrakasta izatea merkatuan, Europak ez badu erregai-zerbitzuguneen sare egoki bat. Horrenbestez, Batzordeak aztertu behar du zer neurri hartu behar diren hidrogenoz dabilzan ibilgailuentzako zerbitzuguneen Europako sarea egin dadin laguntzeko.

(17) Ibilgailu txiki motordunak, homologazioaren alorreko Erkidegoko legedian L kategoriako ibilgailu deritzenak, aitzindariak dira hidrogenoa erregai moduan erabiltzen. Katgoria horretan hidrogenoaren erabilera zabaltzeak ahalegin txikiagoa eskatzen du, erronka tekniko eta egin beharreko inbertsio txikiagoak baitira M eta N kategoriako ibilgailuetarako baino (2007/46/EE Zuzentarauko II. eranskinean definituta daude katgoria horiek). 2010eko urtarrilaren 1a baino lehen, Batzordeak aztertu beharko luke aukerarik badagoen hidrogenoz dabilzan L kategoriako ibilgailuen homologazioa arautzeko.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(12) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela erregelamendu honen xedea — hidrogenoa darabilten ibilgailuen betekizun tekniko bateratuak sartuz, barne-merkatua eratzea— beren kasa behar bezala lortu, eta ekintzaren munta handia dela ikusita, Erkidegoan hobeto bete daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, erregelamendu honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

## HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### 1. artikulua

#### Xedea

Erregelamendu honen bidez ezartzen da zer betekizun bete behar diren ibilgailu motordunak hidrogenoz higiarazteari dagokionez homologatzeko, eta hidrogeno-sistemak eta -osagaiak homologatzeko. Erregelamenduak, gainera, osagai eta sistema horiek instalatzeko betekizunak ere ezartzen ditu.

### 2. artikulua

#### Aplikazio-eremua

Hauei ezarriko zaie erregelamendu hau:

1) M eta N kategoriako hidrogenoz dabiltzan ibilgailuei (2007/46/EE Zuzentarauko II. eranskineko A atalean definituta daude kategoria horiek); ibilgailu horien talken aurkako babesari eta segurtasun elektrikoari buruzkoa ezarriko zaie.

2) M eta N kategoriako ibilgailu motordunetarako diseinatuko hidrogeno-sistamarako osagaiak (I. eranskinean zerrendatuta daude);

2) M eta N kategoriako ibilgailu motordunetarako diseinatuko hidrogeno-sistemei, hidrogenoa biltzeko eta erabiltzeko modu berriak barne.

### 3. artikulua

#### Definizioak

1. Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) "hidrogenoz dabilen ibilgailua": Lokomozio-erregaitzat hidrogenoa erabiltzen duen edozein ibilgailu motordun.

b) "propultsio-sistema": Barne-errekuntzako motorra edo erregai-pilako sistema, ibilgailua higiarazteko erabiltzen dena.

c) "hidrogeno-osagaia": Hidrogeno-tanga, eta hidrogenoz dabilen ibilgailuan, hidrogenoarekin kontaktuan dauden edo hidrogeno-sistema baten atal diren gainerako zatiak.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

c) "hidrogeno-sistema": Hidrogenoz dabilen ibilgailuak dituen hidrogeno-osagai eta -konektoreak, propulsiio-sistema eta potentzia-unitate lagungarriak izan ezik.

e) "laneko gehieneko presio baimendua": Osagai bati eragin dakioken gehieneko presioa, diseinuari jarraituz; osagai horren erresistentzia jakiteko oinarria da.

e) "laneko presio izendatua": Tangei dagokienez, ezarritako presioa, 288 K-eko (15 °C) temperatura uniformean eta tanga beteta dagoela; eta beste osagai batzuei dagokienez, osagaiaren ohiko funtzionamenduko presioa.

g) "barneko tanga": Hidrogeno-tangaren atal bat, hidrogeno kriogenikoak duen hidrogeno likidoa erabiltzeko diseinatutakoa.

2. Lehen paragrafoko d) idatz-zatiari dagokionez, "hidrogeno-sistemak" osagai hauek izango ditu:

a) erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko sistemak;

b) ibilgailuarekin komunikatzeko sistemak;

c) gehiegizko emariko sistemak;

d) gehiegizko presiotik babesteko sistemak;

e) bero-trukagailuan akatsak hautemateko sistemak.

#### 4. artikulua

Ekoizleen betebeharrak

1. Ekoizleek frogatuko dute hidrogenoz dabiltzan ibilgailu berri guztiak, Erkidegoan matrikulatu, saldu edo zerbitzuan jarritakoak, eta Erkidegoan saldu edo zerbitzuan jarritako hidrogeno-sistemak edo haien osagaiak homologatuta daudela, erregelamendu honen eta hori betetzeko hartutako neurrien arabera.

2. Ibilgailuak homologatzeko, ekoizleek hidrogenoz dabiltzan ibilgailuei erregelamendu hau eta erregelamendua betetzeko neurriak betetzen dituzten hidrogeno-sistemak edo haien osagaiak jarriko dizkiete, erregelamendu honen eta erregelamendua betetzeko neurrien arabera instalatutakoak.

3. Hidrogeno-sistemak edo -osagaiak homologatzeko, ekoizleek frogatuko dute horiek betetzen dituztela erregelamendu hau eta erregelamendua betetzeko neurriak.

4. Ekoizleek homologazioan eskudunak diren agintariei egoki den informazio oro emango diote, ibilgailuaren espezifikazioei eta entsegu-baldintzei buruzkoa.

5. Ekoizleek, ibilgailuaren balio-bizitzan, informazioa emango dute hidrogeno-sistemak edo haien osagaiak ikuskatzeko.

#### 5. artikulua

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Hidrogeno-sistemen eta -osagaien betekizun orokorrak

Ekoizleek bermatuko dute:

- a) Hidrogeno-sistemek eta -osagaiek egoki eta segurtasunez funtzionatzen dutela, eta fidagarritasunez egingo dietela aurre, ihesirik eta deformazio nabarmenik gabe, funtzionamenduko baldintza elektriko, mekaniko, termiko eta kimikoei.
- b) Hidrogeno-sistemak gainpresiotik babestuta daudela.
- c) Hidrogenoarekin kontaktu zuzenean dauden hidrogeno-sistemen eta -osagaien ataletarako erabilitako materialak bateragarriak direla hidrogenoarekin.
- d) Hidrogeno-sistemek eta -osagaiek fidagarritasunez egiten dietela aurre espero diren tenperaturei eta presioei, aurreikusitako balio-bizitzan.
- e) Hidrogeno-sistemek eta -osagaiek fidagarritasunez egiten dietela aurre erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako funtzionamendu-tenperaturei.
- f) Hidrogeno-osagaiek erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako marka daramatela.
- g) Emari-noranzkoa duten hidrogeno-osagaietan argi eta garbi agertzen dela emariaren noranzkoa.
- h) Hidrogeno-sistemak eta -osagaiak VI. eranskinean ezarritako betekizunei jarraiki instalatzeko moduan diseinatuta daudela.

## 6. artikulua

Hidrogeno likidoa erabiltzeko diseinatutako tangek bete beharreko betekizunak

Hidrogeno likidoa erabiltzeko diseinatutako tangei entsegu-probak egin beharko zaizkie, II. eranskinean ezarritako prozedurei jarraituz.

## 7. artikulua

Hidrogeno likidoa erabiltzeko osagaiek, tangak ez direnek, bete beharreko betekizunak

1. Hidrogeno likidoa erabiltzeko diseinatutako osagaiei, tangak ez direnei, entsegu-probak egin beharko zaizkie, III. eranskinean ezarritako prozedurei jarraituz, eta osagai-mota bakoitzari erreparatuz.

2. Presioa deskargatzeko gailuen diseinuak bermatuko du barne-tangako presioak edo hidrogeno-sistemako edozein osagaitakoak ez duela balio onargarri jakin bat gainditzen. Hidrogeno-sistemako laneko gehieneko presio baimenduarekiko proportzio batean ezarriko dira balio horiek. Bero-trukagailuek segurtasun-sistema bat izango dute, akatsik baduten hauteman ahal izateko.

## 8. artikulua

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Hidrogeno konprimitua (gas-egoeran) erabiltzeko diseinatutako tangek bete beharreko betekizunak

1. Hidrogeno konprimitua (gas-egoeran) erabiltzeko diseinatutako tangak IV. eranskineko 1. puntuaren arabera sailkatuko dira.

2. 1. paragrafoan adierazitako tangei entsegu-probak egin beharko zaizkie, IV. eranskinean ezarritako prozedurei jarraituz, eta tanga-mota bakoitzari erreparatuz.

3. Tangen diseinuan erabilitako materialen propietate nagusiak eta tolerantziak zehazten dituen deskripzioa emango da, eta han materialari egindako entseguen emaitzak ere jasoko dira.

9. artikulua

Hidrogeno konprimitua (gas-egoeran) erabiltzeko diseinatutako osagaiek, tangez bestelakoek, bete beharreko betekizunak

Hidrogeno konprimitua (gas-egoeran) erabiltzeko diseinatutako osagaiei, tangak ez direnei, entsegu-probak egin beharko zaizkie, V. eranskinean ezarritako prozedurei jarraituz, eta osagai-mota bakoitzari erreparatuz.

10. artikulua

Hidrogeno-sistemak eta -osagaiak instalatzeko betekizun orokorrak

Hidrogeno-sistemak eta -osagaiak VI. eranskinean ezarritako betekizunei jarraiki instalatuko dira.

11. artikulua

Aplikatzen hasteko egutegia

1. 2011ko otsailaren 24tik aurrera, agintari nazionalak ez dute emango:

a) EE homologaziorik edo homologazio nazionalik hidrogeno-propulzioa dela-eta, ibilgailuek ez badituzte betetzen erregelamendu honetan edo erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak

b) EE homologaziorik edo homologazio nazionalik hidrogeno-osagaiei edo -sistemei, osagai edo sistema horiek ez badituzte betetzen erregelamendu honetan edo erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak.

2. 2012ko otsailaren 24tik aurrera, agintari nazionalak:

a) hidrogeno-propulzioarekin lotutako arazoak direla-eta, joko dute ibilgailu berrientzako adostasun-ziurtagiriak ez direla baliozkoak 2007/46/EE Zuzentarauko 26. artikulua ezartzen duenerako, eta debekatu egingo dute ibilgailu berriak matrikulatzea,



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

saltzea eta zirkulazioan sartzea ibilgailu horiek ez badituzte betetzen erregelamendu honetan eta erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak

b) hidrogeno-osagaiak edo -sistemak saltzea eta zirkulazioan jartzea, osagai edo sistema horiek ez badituzte betetzen erregelamendu honetan edo erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak.

3. 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoa bete egin behar bada ere, eta 12. artikuluko 1. paragrafoko betearazte-neurriak indarrean sartu diren ala ez kontuan hartuta, fabrikatzaileak eskatzen badu, agintari nazionalak ezin izango dute:

a) hidrogeno-propultsioa dela-eta EE homologaziorik edo homologazio nazionalik ukatu ibilgailu-mota berriei, eta EE homologaziorik ukatu hidrogeno-osagai edo -sistema berriei, ibilgailu, osagai edo sistema horiek betetzen badituzte erregelamendu honetan edo erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak.

b) debekatu ibilgailu berriak matrikulatzea, saltzea eta zirkulazioan jartzea edo hidrogeno-osagai edo -sistema berriak saltzea eta zirkulazioan jartzea, ibilgailu, osagai edo sistema horiek betetzen badituzte erregelamendu honetan edo erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritako baldintzak.

## 12. artikulua

Erregelamendua betetzeko neurriak

1. Batzordeak erregelamendua betetzeko neurri hauek hartuko ditu:

a) xedapen administratiboak, ibilgailu motordunei EE homologazioa emateko hidrogenoz higiarazteari dagokionez, eta hidrogeno-sistemei eta -osagaiari dagokienez.

b) informazioari buruzko arauak, fabrikatzaileek 4. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetako homologatzeko eta ikuskapena egiteko eman beharreko informazioari buruzkoak;

c) garapen-arauak entsegu-prozeduretarako, II. eranskinetik V. eranskinera bitartean ezarrita daudenetarako;

d) garapen arauak VI. eranskinean ezarritako hidrogeno-sistemak eta -osagaiak instalatzeko;

e) funtzionamenduko betekizunei buruzko garapen-arauak, hidrogeno-osagaien eta -sistemen funtzionamendu seguru eta fidagarriari buruz 5. artikuluan ezarritako betekizunei buruzkoak;

f) hidrogenoz ibiltzen diren ibilgailuen etiketatzeari edo argi eta azkar identifikatzeko beste modu batzuei buruzko garapen-arauak, VI. eranskineko 16. puntuan ezarritakoa betez.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 13. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

2. Batzordeak betearazte-neurri hauek har ditzake:

a) honako puntu hauei buruzko betekizunak zehatz ditzake:

- hidrogeno puruaren edo hidrogeno eta gas natural/biometano nahastearen erabilerari buruzkoak,

- hidrogenoaren biltegitratze- edo erabilera-modu berriei buruzkoak,

- ibilgailua talketatik babesteari buruzkoak, hidrogeno-osagaien eta -sistemen integritatea bermatzeko,

- sistema integratuen segurtasun-betekizunei buruzkoak; gutxienez, ihesak hautemateko modua eta purgatutako gasaren baldintzak zehaztu beharko ditu;

- isolamendu eta segurtasun elektrikoari buruzkoak;

b) erregelamendu hau aplikatzeko beharrezkoak diren beste neurri batzuk.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 13. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

13. artikulua

Komite-prozedura

1. Batzordeak Motordun Ibilgailuei buruzko Komitearen laguntza izango du. Komite hori 2007/46/EE Zuzentarauko 40. artikuluko 1. paragrafoak ezarritakoa betez sortu da.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

14. artikulua

2007/46/EE zuzentarauaren aldaketak

2007/46/EE zuzentarauko IV, VI eta XI. eranskinak aldatu egin dira, erregelamendu honetako VII. eranskinean ezarritakoari jarraituz.

15. artikulua

Ez betetzeagatiko zehapenak

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Estatu kideek ekoizleek erregelamendu honetan eta erregelamendua betetzeko neurrietan ezarritakoa ez betetzeagatik izan ditzaketen zehapenei buruzko xedapenak onartuko dituzte, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte aplikatu egiten direla bermatzeko. Ezarritako zigorrak eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiozkoak izango dira. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiete xedapenak, 2010eko abuztuaren 24a baino lehen, eta horietan egiten duten aldaketa oro jakinaraziko diote, berehala.

2. Zehapena dakarten ez-betetzeen artean, arau-hauste hauek sartuko dira, gutxienez:

a) deklarazio faltsuak egitea homologazio-prozeduretan edo ikuskapena egitera deitzeko prozeduretan;

b) zirkulazioan dauden ibilgailuen homologazio-entseguen emaitzak edo adostasunak faltsutzea;

c) ez ematea ikuskapena egitera deitzea edo galtzea eragin dezaketen datuak edo espezifikazio teknikoak;

d) ez uztea informazioa eskuratzen;

e) desaktibazio-gailuak erabiltzea.

16. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau indarrean sartuko da *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeit hamar egunera.

2011ko otsailaren 24tik aurrera izango da aplikagarria, atal hauek izan ezik: 11. artikuluko 3. paragrafoa eta 12. artikulua, erregelamendua indarrean sartzen denean izango baitira aplikagarriak; eta 11. artikuluko 2. paragrafoa, han adierazitako egunetik aurrera izango baita aplikagarria.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko urtarrilaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

A. Vondra

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

[1] 2008ko uztailaren 9an emandako irizpena.

[2] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 3koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 16koa.

[3] L 263 EO, 2007.10.9koa, 1. or.

[4] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

## ANEXO I

**Lista de componentes de hidrógeno que deben ser homologados**

Los siguientes componentes de hidrógeno, cuando el vehículo impulsado por hidrógeno disponga de ellos, deberán ser homologados:

- a) componentes diseñados para utilizar hidrógeno líquido:
  - 1) depósito;
  - 2) válvula de cierre automática;
  - 3) válvula antirretorno o de control (si se utiliza como dispositivo de seguridad);
  - 4) conducto de combustible flexible (si está situado antes de la primera válvula de cierre automática u otros dispositivos de seguridad);
  - 5) intercambiador térmico;
  - 6) válvula manual o automática;
  - 7) regulador de presión;
  - 8) válvula de descarga de presión;
  - 9) sensores de presión, temperatura y caudal (si se utilizan como dispositivo de seguridad);
  - 10) conexión o receptáculo para el reabastecimiento de combustible;
  - 11) sensores de detección de fugas de hidrógeno;
  
- b) componentes diseñados para utilizar hidrógeno comprimido (en estado gaseoso) con una presión de trabajo nominal superior a los 3,0 MPa:
  - 1) depósito;
  - 2) válvula de cierre automática;
  - 3) conjunto de piezas del depósito;
  - 4) accesorios;
  - 5) conducto de combustible flexible;
  - 6) intercambiador térmico;
  - 7) filtro de hidrógeno;
  - 8) válvula manual o automática;
  - 9) válvula antirretorno;
  - 10) regulador de presión;
  - 11) dispositivo de descarga de presión;
  - 12) válvula de descarga de presión;
  - 13) conexión o receptáculo para el reabastecimiento de combustible;
  - 14) conector extraíble del sistema de almacenamiento;
  - 15) sensores de presión, temperatura, hidrógeno y caudal (si se utilizan como dispositivo de seguridad);
  - 16) sensores de detección de fugas de hidrógeno.

## ANEXO II

**Procedimientos de ensayo aplicables a los depósitos de hidrógeno diseñados para el uso de hidrógeno líquido**

Tipo de ensayo
Ensayo de rotura
Ensayo de inflamación
Ensayo de nivel máximo de llenado
Ensayo de presión
Ensayo de fugas

Los procedimientos de ensayo que han de aplicarse a la homologación de los depósitos de hidrógeno diseñados para el uso de hidrógeno líquido deberán incluir los siguientes:

- a) Ensayo de rotura: el ensayo debe demostrar que el depósito de hidrógeno no se rompe por debajo de un grado determinado de alta presión: la presión de rotura (el factor de seguridad multiplicado por la presión máxima de trabajo permitida). Para obtener la homologación, el valor de la presión de rotura real durante el ensayo deberá ser superior a la presión de rotura mínima requerida.
- b) Ensayo de inflamación: el ensayo debe demostrar que el depósito, equipado con un sistema antifuego, no se rompe cuando es sometido a ensayo con arreglo a las condiciones de incendio especificadas.
